La Diputación Foral podrá concertar operaciones de endeudamiento que se llevarán a cabo mediante emisiones de deuda pública o mediante operaciones de crédito o de préstamo en sus distintas modalidades.

Los organismos autónomos forales no podrán concertar operaciones de endeudamiento a largo plazo.

#### Artículo 116.— Clasificación

1. El endeudamiento Foral se clasifica en presupuestario o no presupuestario en función de que su destino sea financiar las obligaciones derivadas de la ejecución de los Presupuestos o atender a necesidades temporales de tesorería.

2. Para los pasivos financieros que no tengan la finalidad de financiar las obligaciones que se deriven de la gestión presupuestaria, ni la de hacer frente a las necesidades de Tesorería, la Diputación Foral podrá acordar su aplicación no presupuestaria, con indicación de los motivos por los que se realiza.

3. Los gastos e ingresos financieros de cualquier tipo de derivados de la deuda pública se aplicarán, sin excepción alguna, al Presupuesto de la Diputación Foral.

#### Artículo 117.— Características

El endeudamiento podrá estar denominado en moneda de curso legal dentro del territorio del Estado y en moneda extranjera, llevarse a cabo tanto en el citado territorio como en el extranjero y reunir las características de plazo, tipo de interés, representación y cualesquiera otras que permitan el coste y el riesgo adecuados de la operación.

#### Artículo 118.— Límites de la deuda viva presupuestaria

Al cierre del ejercicio el endeudamiento vivo de la Diputación Foral no podrá ser superior a 1,5 veces el Presupuesto de Ingresos corrientes propios, es decir, descontados de los ingresos corrientes totales los gastos correspondientes a las obligaciones institucionales definidas en el artículo 29 de la presente Norma Foral.

#### Artículo 119.— Endeudamiento a largo plazo

La Norma Foral de Presupuestos Generales aprobará, para cada ejercicio, el límite máximo del endeudamiento a largo plazo.

#### Artículo 120.— Endeudamiento a corto plazo

Las operaciones de endeudamiento cuyo plazo sea inferior a un año y que estén destinadas a financiar los desfases que se produzcan en la Tesorería no computarán dentro de las limitaciones del artículo 118 siendo el Dipu-

## II. KAPITULUA SEKTORE PUBLIKO ADMINISTRATIBOAREN ZORPETZEA

### LEHENENGO ATALA ZORPETZEA ORO HAR

#### 115. artikulua.— Gaitasuna

Foru Administrazioak zorpetze-eragiketak itundu ahal izango ditu; eragiketa horiek zor publikoaren jaulkipenak edo modalitate guztietako kreditu- edo mailegu-eragiketak eginez burutuko dira.

Foru erakunde autonomiadunek ezin izango dute epe luzerako zorpetze-eragiketarik itundu.

#### 116. artikulua.— Sailkapena

1. Foru zorpetzea aurrekontukoa edo aurrekontuz kanpokoa izan daiteke, xedea aurrekontuak betearaztearen ondoriozko betebeharrak finantzatzea den edo diruzaintzaren aldi baterako beharrei erantzutea den.

2. Aurrekontuen kudeaketak eragiten dituen betebeharrak finantzatu edo Diruzaintzako beharrei aurre egiteko xedea ez duten finantza-pasiboetarako, Foru Aldundiak aurrekontukoa ez den zorpetzea erabaki ahal izango du, eta hala egiteko zergatiak adieraziko ditu.

3. Zorpetzea publikoaren ondoriozko finantza-gastu eta -sarrera guztiak, salbuespenik gabe, Foru Aldundiaren aurrekontuari aplikatuko zaizkio.

#### 117. artikulua.— Ezaugarriak

Zorpetzea legezko erabilerako monetaz izendatu ahal izango da Estatuaren lurraldearen barruan, baita atzerriko monetaz ere; halaber, aipatu den lurraldean zein atzerrian burutu ahal izango da, eta eragiketaren kostu eta arrisku egokiak ahalbidetzen dituzten epea, interes-tasa, ordezkaritza eta beste edozein ezaugarri bildu ahal izango ditu.

#### 118. artikulua.— Aurrekontuko zor biziaren mugak

Ekitaldiaren itxieran Foru Aldundiaren zorpetzea bizia ezin izango da diru-sarrera arrunt propioen aurrekontua baino 1,5 bider handiagoa izan, behin guztirako sarrera arruntetik Foru arau honetako 29. artikuluan zehazten diren erakunde-betebeharrei dagozkien gastuak kenduta.

#### 119. artikulua.— Epe luzerako zorpetzea

Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauak epe luzerako zorpetzearen gehienezko muga onetsiko du ekitaldi baikoitzeko.

#### 120. artikulua.— Epe laburrerako zorpetzea

Urtebetetik beherako epea duten zorpetze-eragiketak, baldin eta Diruzaintzan gertatzen diren desfaseak finantzatzeko xedatzen badira, ez dira konputatuko 118. artikulua mugen barruan, eta Ogasun eta Finantza Sai-



tado o la Diputada Foral de Hacienda y Finanzas quien autorice y fije las condiciones para materializar dicha financiación a corto plazo.

### Artículo 121.— Operaciones financieras especiales que afectan al endeudamiento

1. El Departamento de Hacienda y Finanzas podrá concertar operaciones financieras destinadas a disminuir o diversificar su riesgo o su coste, a facilitar su colocación o a defender su posición en el mercado, u otras que se precisen para la correcta gestión financiera del endeudamiento.

2. Las operaciones a que se refiere el apartado anterior podrán consistir en la utilización genérica de distintos productos derivados como permutas financieras, opciones, futuros, o cualquier otro instrumento financiero que, basado en distintos activos subyacentes, sea necesario para llevar a cabo la gestión financiera que mejor se adapte a las expectativas existentes.

#### SECCIÓN SEGUNDA LA DEUDA PÚBLICA

### Artículo 122.— Emisión

1. La emisión de deuda pública será acordada por la Diputación Foral, a propuesta del Diputado o la Diputada Foral de Hacienda y Finanzas.

2. El Acuerdo de emisión determinará tanto los importes máximos de la operación como la fecha límite para llevarla a efecto.

3. Corresponde al Diputado o a la Diputada Foral de Hacienda y Finanzas determinar el resto de las características de la emisión no señaladas por el Acuerdo a que se refiere el punto anterior.

### Artículo 123.— Instrumentación

1. La deuda pública de la Diputación Foral podrá estar representada por anotaciones en cuenta o por cualquier otro medio que formalmente la reconozca.

2. Las emisiones de Deuda Pública Foral pueden formar parte de emisiones conjuntas a realizar con el Gobierno Vasco, Diputaciones Forales y Ayuntamientos u otras Instituciones de la Comunidad Autónoma, de cara a obtener las mejores condiciones en los mercados financieros.

### Artículo 124.— Prescripción

1. Prescribirán a los cinco años la obligación de pagar los intereses de la Deuda Pública Foral y la de devolver los capitales llamados a reembolso, contados respectivamente a partir del vencimiento de los intereses y del día de llamamiento a reembolso. En los supuestos de llamada a conversión o canje obligatorio, prescribirá la obligación de reembolso de capitales a los diez años contados desde el último día del plazo establecido para la operación.

2. Cuando las obligaciones de pago derivadas de la deuda pública se realizasen a través de un tercero y transcurridos 6 meses éste no pudiere hacerlas seguir al tenedor o titular, se procederá a poner a su disposición el importe en la Tesorería Foral, observándose, en todo caso, lo

leko foru diputatuak baimendu eta finkatuko ditu epe laburrerako finantzazio hori gauzatzeko baldintzak.

### 121. artikulua.— Zorpetzean eragina duten finantza-eragiketa bereziak

1. Ogasun eta Finantza Sailak hainbat finantza-eragiketa itundu ahal izango ditu, arriskua edo kostua gutxitu edo dibertsifikatzeko, merkatuan hobeto kokatu edo bere egoera defendatzeko, edo, oro har, zorpetzearen finantza-kudeaketa egokia burutzeko.

2. Goiko paragrafoan aipatutako eragiketarako, hainbat produktu eratorriren erabilera generikoa egin ahal izango da; esaterako, ondoko produktuak erabili ahal izango dira: finantza-trukaketak, aukerak, gerokoak, edo azpiko hainbat aktibotan oinarriturik dagoen beste edozein finantzatresna, baldin eta itxaropenetara ondoen egokitzen den finantza-kudeaketa burutzeko beharrezkoa bada.

#### BIGARREN ATALA ZOR PUBLIKOA

### 122. artikulua.— Jaulkipena

1. Zor publikoaren jaulkipena Foru Aldundiak erabakiko du, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuta.

2. Jaulkipenerako erabakian hala eragiketaren gehienezko zenbatekoak nola eragiketa egiteko mugaeguna zehaztuko dira.

3. Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari dagokio aurreko paragrafoan aipatutako erabakian adierazten ez diren jaulkipenaren gainerako ezaugarriak ezartzea.

### 123. artikulua.— Bideratzea

1. Foru Aldundiaren zor publikoa kontuko idaztoharrez edo formalki aitortzen duen bestelako bide batez adierazi ahal izango da.

2. Foru zor publikoaren jaulkipenak Eusko Jaurlaritzarekin, foru aldundiekin eta udalekin edo Autonomia Erkidegoko beste erakunde batzuekin batera burutu beharrek jaulkipenen zati izan daitezke, finantza-merkatuetan baldintzarik onenak lortze aldera.

### 124. artikulua.— Preskripzioa

1. Bosgarren urtean preskribatuko du foru zor publikoaren interesak eta itzultzekoak diren kapitalak ordaindu beharrrak; epe hori, hurrenez hurren, interesen mugaegunetik eta kapitalak itzultzeko deia egiten den egunetik aurrera hasiko da zenbatzen. Bihurketarako edo derrigorrezko trukerako deia egiten denean, kapitalak itzuli beharrrak hamargarren urtean preskribatuko du, eragiketarako ezarritako epearen azken egunetik aurrera zenbatzen hasita.

2. Baldin eta foru zor publikoaren ondoriozko betebeharrak hirugarren baten bidez ordaintzen badira eta 6 hilabete igaro ondoren hirugarren horrek ezin badizkie edukitzailari edo titularrari ordaindu, zenbatekoa hirugarrenaren eskura jarriko da Foru Diruzaintzan, eta betiere artikulua honetako lehenengo paragrafoan xedatu-

dispuesto en el párrafo primero de este artículo.

3. La interrupción de la prescripción se verificará conforme a las disposiciones del Código Civil.

4. Los capitales de la deuda pública prescribirán a los veinte años sin percibir sus intereses, ni realizar su titular acto alguno ante la Hacienda Foral que suponga o implique el ejercicio de su derecho.

#### SECCIÓN TERCERA OPERACIONES DE CRÉDITO O DE PRÉSTAMO

##### Artículo 125.— Aprobación y gestión

1. La Diputación Foral podrá autorizar operaciones de crédito o de préstamo con entidades financieras, señalando las características generales a que deban someterse.

2. El Departamento de Hacienda y Finanzas concertará las operaciones de crédito y de préstamo, las gestionará y ejercerá las facultades correspondientes a la parte prestataria en el respectivo contrato.

#### CAPÍTULO III ENDEUDAMIENTO DEL SECTOR PÚBLICO EMPRESARIAL

##### Artículo 126.— Entidades públicas empresariales, sociedades mercantiles y fundaciones forales

1. Las entidades públicas empresariales no podrán concertar operaciones de endeudamiento a largo plazo.

2. Las sociedades mercantiles y fundaciones forales sólo podrán realizar operaciones de endeudamiento a largo plazo, cualesquiera que sean sus características, plazo y régimen de formalización, en el caso de que tales operaciones estén recogidas en sus respectivos presupuestos o en sus modificaciones aprobadas conforme a la normativa vigente.

3. La realización de tales operaciones quedará limitada a las necesidades financieras de la entidad para hacer frente a las operaciones del presupuesto de capital.

4. La Norma Foral de Presupuestos Generales aprobará para cada ejercicio, el límite máximo de endeudamiento a largo plazo.

5. Todas las operaciones de endeudamiento a corto y largo plazo requerirán, con anterioridad a su formalización, autorización preceptiva del Departamento de Hacienda y Finanzas.

#### CAPÍTULO IV AVALES

##### Artículo 127.— Concesiones de avales

1. La Diputación Foral podrá garantizar las obligaciones derivadas de operaciones de crédito concertadas a largo plazo, mediante el otorgamiento del correspondiente aval o contraaval, con el límite y las personas beneficiarias

takoari eutsiko zaio.

3. Kode Zibilaren xedapenen arabera egiaztatuko da preskripzioaren etetea.

4. Foru zor publikoaren kapitalek hogeigarren urtean preskribatuko dute, kapitalon interesik jaso gabe; era berean, kapitalon titularrak ezin izango du Foru Ogasunaren aurrean interesak jasotzeko eskubiderik erabili.

#### HIRUGARREN ATALA KREDITU- EDO MAILEGU-ERAGIKETAK

##### 125. artikulua.— Onespena eta kudeaketa

1. Foru Aldundiak finantza-erakundeekiko kreditu- edo mailegu-eragiketak baimendu ahal izango ditu, eta onartu behar dituzten ezaugarri nagusiak adieraziko dizkie.

2. Ogasun eta Finantza Sailak kreditu- eta mailegu-eragiketak itundu eta kudeatuko ditu, eta dagokien kontratuan mailegariari dagozkion ahalmenak erabiliko ditu.

#### III. KAPITULUA ENPRESA-SEKTORE PUBLIKOAREN ZORPETZEA

##### 126. artikulua.— Enpresa-erakunde publikoak, merkataritzako foru sozietateak eta foru fundazioak

1. Enpresa-erakunde publikoek ezin izango dute epe luzerako zorpetze-eragiketarik itundu.

2. Merkataritzako foru sozietateek eta foru fundazioek kasu batean bakarrik egin ahal izango dituzte epe luzerako zorpetze-eragiketak, eragiketon ezaugarriak, epea eta formalizazioaren araubidea edozein direla ere; hain zuzen ere, kasu honetan: zorpetze-eragiketa horiek sozietate-fundazioon aurrekontuetan edo indarreko arautegiaren arabera onetsitako aurrekontu aldaketetan jasotzen badira.

3. Kapital aurrekontuaren eragiketei aurre egiteko erakundeak dituen finantza-beharrizantetara mugatuko dira eragiketa horiek.

4. Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauak epe luzerako zorpetzearen gehieneko muga onetsiko du ekitaldi bakoitzeko.

5. Epe labur eta luzerako zorpetze-eragiketa guztiek, formalizatu aurretik, Ogasun eta Finantza Sailaren baime-na behar dute.

#### IV. KAPITULUA ABALAK

##### 127. artikulua.— Abalak ematea

1. Foru Aldundiak epe luzera itundutako kreditu-eragiketen ondoriozko betebeharrak bermatu ahal izango ditu, dagokion abala edo kontrabala egiletsiz, eta ondorengo artikuluetan aurreikusitako muga eta onuradunak

previstas en los artículos siguientes.

Los avales o contraavales serán otorgados con carácter subsidiario.

2. El resto de entidades del sector público foral no podrán conceder avales o contraavales, salvo autorización expresa de la Diputación Foral de Bizkaia.

### Artículo 128.— Límite

El importe máximo de las garantías a conceder por la Diputación Foral durante cada ejercicio no podrá superar el límite establecido en la Norma Foral de Presupuestos Generales.

A efectos del límite anterior se considerará únicamente el principal de la obligación garantizada en el momento de su formalización.

### Artículo 129.— Beneficiarios

1. La concesión de garantías se hará en favor de las entidades que integran el sector público foral y de los Ayuntamientos del Territorio Histórico de Bizkaia dentro de los límites y objetivos financieros que la Diputación Foral considere.

2. Igualmente se podrán avalar operaciones de endeudamiento formalizadas por Consorcios participados por la Diputación Foral y sociedades mercantiles cuyo capital mayoritario sea público.

3. La Diputación Foral excepcionalmente podrá avalar operaciones efectuadas por personas físicas o jurídicas no contempladas en los apartados anteriores. En este supuesto, siempre que existan bienes o derechos en el patrimonio del avalado, se exigirá garantías reales sobre los mismos.

### Artículo 130.— Órgano competente

1. La aprobación y modificación de la prestación de avales y contravales corresponde a la Diputación Foral. La propuesta se remitirá por el Departamento interesado en la concesión de la garantía, y se acompañará de un informe del mismo sobre la viabilidad de la operación, así como de informe preceptivo del Departamento de Hacienda y Finanzas.

2. Cuando el aval o conjunto de avales a prestar supere los tres millones de euros o se otorgue a una entidad distinta de las enumeradas en los apartados 1 y 2 del artículo 129 de esta Norma Foral requerirá el acuerdo expreso de las Juntas Generales.

Queda excepcionado de lo dispuesto en el párrafo anterior la concesión de avales o contraavales necesarios para la formalización del endeudamiento de las sociedades mercantiles y fundaciones forales aprobado en la Norma Foral de Presupuestos Generales.

3. Toda concesión de garantía, y su modificación requerirá informe preceptivo y vinculante del Departamento de Hacienda y Finanzas.

4. Los avales serán documentados, en la forma que se determine reglamentariamente, y formalizados por el Diputado o la Diputada Foral de Hacienda y Finanzas.

kontuan hartuta.

Subsidiarioki egiletsiko dira abalak eta kontrabalak.

2. Foru sektore publikoko gainerako erakundeek ezin izango dute abal edo kontrabalik eman, salbu eta Bizkaiko Foru Aldundiak berariazko baimena ematen badie.

### 128. artikulua.— Muga

Foru Aldundiak ekitaldi bakoitzean eman beharreko bermeen gehieneko zenbatekoak ezin izango du Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauan ezarritako muga gainditu.

Goiko mugaren ondoreetarako, formalizazioaren unean bermatzen den betebeharraren printzipala baino ez da kontuan izango.

### 129. artikulua.— Onuradunak

1. Bermeen emakida foru sektore publikoa osatzen duten erakundeek eta Bizkaiko Lurralde Historikoko udalen alde egingo da, Foru Aldundiak egokitzat jotzen dituen finantza-muga eta -helburuen barruan.

2. Era berean, Foru Aldundiak partaidetutako partzuegoek eta kapitalik gehiena publikoa duten merkataritza-sozietateek formalizaturiko zorpetze-eragiketak abalatu ahal izango dira.

3. Salbuespenez, pertsona fisiko edo juridikoen egin eta aurreko ataletan zehaztu ez diren eragiketak abalatu ahal izango ditu Foru Aldundiak. Kasu horretan, abalaturako ondarearen gaineko ondasun edo eskubiderik badago, ondasun eta eskubideon gaineko berme errealak eskatu dira.

### 130. artikulua.— Organo eskuduna

1. Foru Aldundiari dagokio abal eta kontrabalen mailegua onetsi eta aldatzea. Bermea emateko interesaturik dagoen sailak igorriko du proposamena, eta proposamena-ekin batera eragiketaren bideragarritasunari buruzko txostena eta Ogasun eta Finantza Sailaren nahitaezko txostena bidaliko dira.

2. Eman beharreko abala edo abal multzoa hiru milioi eurotik gorakoa denean edo foru arau honetako 129. artikuluko 1. eta 2. Zenbakietan azaldutako erakundeetako bat ez den beste erakunde bati ematen zaionean, Batzar Nagusien berariazko erabakia beharko da.

Goiko lerroaldean xedatutakotik salbuetsita geratzen da Aurrekontuei buruzko Foru Arauan merkataritzako foru sozietateei eta foru fundazioei onetsitako zorpetzea formalizatzeko beharrezkoak diren abalak eta kontrabalak ematea.

3. Bermeen emakida eta aldaketa guztiek behar izango dute Ogasun eta Finantza Sailaren nahitaezko txosten loteslea.

4. Abalak dokumentatuak izango dira, arau bidez ezartzen den eran, eta Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak formalizatuko ditu.

**Artículo 131.— Consecuencia del impago**

La Diputación Foral, con cargo a los créditos presupuestarios del Departamento que hubiera propuesto la concesión del aval, responderá de las obligaciones de pago de la amortización y de los intereses en el caso de incumplimiento de tales obligaciones por la persona deudora principal. Se podrá acordar la renuncia al beneficio de excusión establecido en el artículo 1.830 del Código Civil, sólo en el supuesto de que los beneficiarios de los avales fueran las entidades del sector público foral, las sociedades mercantiles cuyo capital mayoritario sea público y las Corporaciones Locales de Bizkaia.

**TÍTULO V  
CONTROL****CAPÍTULO I  
PRINCIPIOS GENERALES****Artículo 132.— Definición y ámbito de aplicación**

1. Se entiende por control aquél que se ejerce sobre la actividad económica y financiera del Sector público foral, sobre las materias propias de la Hacienda Foral y sobre las operaciones individuales que derivando de aquéllas tienen relación directa o indirecta con el conjunto de derechos y obligaciones que la conforman.

2. El control es aplicable, con las especificaciones establecidas en el presente Capítulo, a todas las Entidades cuyos Presupuestos compongan los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia, y a las personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, que reciban o utilicen subvenciones o fondos otorgados con cargo a los citados Presupuestos.

El referido control tiene como objetivos:

- Verificar y, en su caso, asegurar la sujeción y adecuación al ordenamiento jurídico vigente de la gestión objeto de control.
- Verificar el adecuado registro y contabilización de las operaciones realizadas, y su fiel y regular reflejo en las cuentas y estados que, conforme a las disposiciones aplicables, deba formular cada órgano o entidad.
- Comprobar que la actividad objeto de control se ha desarrollado con arreglo a los principios de buena gestión financiera y, en especial, de economía, eficiencia y eficacia.
- Verificar el nivel de resultados obtenidos en relación con los objetivos propuestos, los medios utilizados y los efectos producidos en los respectivos programas.

**Artículo 133.— Competencia en materia de control**

1. En los términos establecidos en la presente Norma Foral, las funciones de control que se regulan en la mis-

**131. artikulua.— Ez-ordaintzearen ondorioa**

Foru Aldundia, abalaren emakida proposatzen duen sailaren aurrekontuko kredituen kontura, amortizazioa eta interesak ordainketa-betebeharren erantzule izango da, baldin eta zordun nagusiak ordainketa horiei aurre egiten ez badie. Abalen onuradunak foru sektore publikoko erakundeak, kapital gehiena publikoa duten merkataritza-sozietateak eta Bizkaiko toki-korporazioak direnean bakarrik erabaki daiteke Kode Zibilaren 1.830 artikuluan ezarritako eskusio-onurari uko egitea.

**V. TITULUA  
KONTROLA****I. KAPITULUA  
PRINTZIPIO OROKORRAK****132. artikulua.— Definizioa eta aplikazio-eremua**

1. Kontrolatzat jotzen da foru sektore publikoaren jardura ekonomikoaren gaineko kontrola, Foru Ogasunaren be-  
rezko gaien gaineko kontrola eta gai horietatik datozen eta zuzenean edo zeharka jardura hori osatzen duten eskubide eta betebeharren multzoari lotuta dauden ban-banako eragiketen gaineko kontrola.

2. Kontrola, kapitulu honetan ezarri diren zehaztapenekin, ondokoei ezarri ahal zaie: Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorrak osatzen dituzten aurrekontuak dituzten erakunde guztiei, baita aurrekontu horien kontura emandako diru-laguntzak edo funtsak jasotzen edo erabiltzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoei, publiko nahiz pribatuei, ere.

Kontrolak helburu hauek ditu:

- Kontrolatzen den kudeaketa indarreko ordenamendu juridikoari lotzen eta egokitzen zaiola egiaztatzea eta, behar izanez gero, lotura eta egokitasuna ziurtatzea.
- Egindako eragiketak behar bezala erregistratu eta kontabilizatuta daudela eta, ezar daitezkeen xedapenen arabera, organo edo erakunde bakoitzak formulatu behar dituen kontu eta orrietan zehaztasunez eta arauak betez azaltzen direla egiaztatzea.
- Kontrolatu beharreko jardura finantza-kudeaketa onaren printzipioen arabera, bereziki, ekonomia, efizientzia eta eraginkortasunaren printzipioen arabera egin dela egiaztatzea.
- Eskuratutako emaitzen maila programetan proposatutako helburuen, erabilitako baliabideen eta lortutako ondorioen arabera egiaztatzea.

**133. artikulua.— Kontrol arloko eskumena**

1. Foru arau honetan ezarritakoaren arabera, Ogasun eta Finantza Saileko organo eskudunak beteko ditu foru

ma se realizarán por el correspondiente órgano del Departamento de Hacienda y Finanzas, que será, asimismo, competente para instar el ejercicio de la potestad reglamentaria en materia de control en el ámbito del sector público foral, debiendo ser atendido en cualquier iniciativa relativa a las materias citadas.

2. Las funciones de control que realice el correspondiente órgano del Departamento de Hacienda y Finanzas se llevarán a cabo por medio del personal adscrito al mismo, que estarán sujetos a la responsabilidad contable que establezcan las disposiciones en vigor en los términos que de ellas se deriven. El ejercicio de la citada actividad podrá llevarse a cabo directamente o mediante delegación. Asimismo, podrá servirse de medios ajenos a la propia Administración contratados al efecto cuando se refiera al ejercicio del control mediante procedimientos de auditoría.

3. En el ejercicio de sus funciones de control, se podrán recabar los expedientes, datos, informes, asesoramientos técnicos, antecedentes, documentos o aclaraciones necesarios para el desempeño de su función a cuantas instancias fuere pertinente. El correspondiente requerimiento no podrá ser denegado salvo causas de fuerza mayor o secreto de las actuaciones en los términos previstos en la legislación vigente.

4. Reglamentariamente se establecerá la estructura y organización del órgano competente en materia de Control, así como el desarrollo de las modalidades de ejercicio de sus funciones.

#### Artículo 134.— Principios del control

El control se desarrollará bajo los principios básicos siguientes:

- a) Principio de universalidad en el objeto, según el cual toda la actividad económica y financiera realizada por el sector público foral es susceptible de control.
- b) Principio de unicidad y jerarquía orgánica, según el cual el órgano que ejerce el control económico y financiero es único para todo el sector público foral y está orgánicamente ubicado en el Departamento de Hacienda y Finanzas.
- c) Principio de independencia funcional, según el cual el órgano ejerciente del control lo hace con absoluta autonomía respecto a los órganos y entes a los que controla.
- d) Principio de responsabilidad limitada a su actuación, según el cual los sujetos que ejercen el control sólo son responsables en los casos en que con dolo, culpa o negligencia grave no hayan salvado su responsabilidad acerca de la improcedencia o ilegalidad de aquellos actos o disposiciones que causen daños y perjuicios a la Hacienda Foral y en cuyo proceso de formación, emisión y supervisión hayan participado previamente.
- e) Principio de colaboración orgánica, según el cual y dentro de las competencias reconocidas, el órgano ejerciente del control prestará colaboración y asistencia activa a los órganos cuya actividad controle para el eficaz ejercicio de las funciones y compe-

arauan arautzen diren kontrol-eginkizunak. Organo horrek eskumena edukiko du, era berean, foru sektore publikoaren eremuan kontrolari dagozkion gaiak arautzeko ahala erabil dadila eskatzeko, eta aipaturiko gaien inguruko edozein ekimenetan jaramon egin beharko zaio.

2. Ogasun eta Finantza Saileko organo eskudunak sailari atxikitako langileen bitartez beteko ditu kontrol-eginkizunak. Langileok indarreko xedapenetan ezarrita dagoen kontabilitate-erantzukizuna izango dute, xedapen horietan ezartzen den eran. Jarduera hori zuzenean edo eskuordetuta egin ahal izango da. Horrez gain, kontrola auditoria-prozeduren bidez egitekotan, administrazioaz kanpoko baliabideak, berariaz kontratatutakoak, erabili ahal izango dira.

3. Kontrol-eginkizunak egitean, behar adina espediente, datu, txosten, aholku tekniko, aurrekari, agiri eta argibide —kontrolatzen denak bere egitekoa betetzeko beharrezko dituenak— eskatu ahal izango zaizkio bidezkotzat jotako edonori. Dagokion errekerimenduari ezin izango zaio uko egin, salbu eta, indarreko legedian ezarritakoaren arabera, ezinbesteko arrazoiak badaude edo isileko jarduerak badira.

4. Kontrol arloan eskuduna den organoaren egitura eta antolaketa arau bidez ezarriko dira, eta bai organo horren eginkizunak betetzeko modalitateen garapena ere.

#### 134. artikulua.— Kontrolaren printzipioak

Kontrolak oinarritzko printzipio hauek izango ditu:

- a) Kontrolatzeko gaiei dagokienez, unibertsaltasunaren printzipioa. Printzipio horren arabera, foru sektore publikoak egiten dituen ekonomia- eta finantza-jarduera guztiak kontrola daitezke.
- b) Bakartasunaren eta hierarkia organikoaren printzipioa. Printzipio horren arabera, foru sektore publiko osoan organo bakar batek egiten du kontrol ekonomikoa, eta organikoki organo hori Ogasun eta Finantza Sailean dago.
- c) Funtzio-independenziaren printzipioa. Printzipio horren arabera, kontrola egiten duen organoak kontrolatzen dituen organo eta erakundeekiko erabateko autonomiaz jardun behar du.
- d) Erantzukizuna norberaren jarduerara mugatzeko printzipioa. Printzipio horren arabera, kontrola egiten duten subjektuek ez dute erantzukizunik izango, salbu eta dolo, erruz edo arduragabekeria larri jokatzuz Foru Ogasunari gaitz eta kalteak eragiten dizkioten egintza edo xedapen bidegabeak edo legez aurkakoak egiteagatik erantzukizuna bereganatzen dutenean, betiere, egintza edo xedapen horiek antolatu, eman eta gainbegiratzeko prozesuan parte hartu badute.
- e) Lankidetzaren organikoaren printzipioa. Printzipio horren arabera, aitortutako eskumenen esparruan, kontrola egiten duen organoak lankidetzaren eta laguntza aktiboa eskainiko dizkie kontrolatzen dituen organoei, euren eginkizun eta eskumenak eragin-

tencias de éstos.

### Artículo 135.— Modalidades de control

Sobre la actividad económica y financiera del sector público foral se ejercerán las siguientes modalidades de control:

- a) Fiscalización.
- b) El control contable.
- c) El control económico.
- d) Auditoría.

## CAPÍTULO II FISCALIZACIÓN

### Artículo 136.— Objeto y ámbito de la fiscalización

1. Corresponde a la fiscalización el control de la actividad económica del sector público administrativo a fin de garantizar el cumplimiento de las disposiciones que le sean aplicables.

2. A los efectos de la presente Norma Foral se entenderá por actividad económica el conjunto de actos administrativos así como los hechos u operaciones con trascendencia económica que sean susceptibles de producir derechos y obligaciones para la Hacienda Foral o el movimiento de fondos o valores. El órgano competente para la fiscalización determinará la existencia de contenido económico de los actos administrativos.

3. Toda propuesta normativa, incluidos los proyectos de Norma Foral, cuya aplicación pueda suponer un incremento de gasto o una disminución de ingresos públicos, tanto en el ejercicio corriente como en posteriores, deberá incluir entre los antecedentes y estudios previos, una memoria económico-financiera elaborada por el Departamento que formule la propuesta, en la que se pongan de manifiesto debidamente evaluados cuantos datos sean precisos para conocer las posibles repercusiones presupuestarias de su ejecución.

### Artículo 137.— Alcance y ámbito de aplicación

1. Corresponde a la fiscalización el control previo de:

- a) Las propuestas de Acuerdos y Decretos Forales de contenido económico directo o indirecto cuya autorización y aprobación compete a la Diputación Foral o cuyo conocimiento le corresponda.
- b) Los actos y disposiciones de contenido económico directo o indirecto dictados por cualquier órgano del sector público administrativo.
- c) Las modificaciones presupuestarias, las operaciones patrimoniales y las consistentes en concesión de garantías con cargo a la Tesorería Foral.
- d) Los hechos u operaciones económicas que puedan dar lugar a gastos de cuantía indeterminada y aquéllos que supongan compromisos tanto de in-

kortasunez egin ditzaten.

### 135. artikulua.— Kontrolaren modalitateak

Kontrol-modalitate hauek egingo dira foru sektore publikoaren ekonomia- eta finantza-jardueraren gainean:

- a) Fiskalizazioa.
- b) Kontabilitate-kontrola.
- c) Kontrol ekonomikoa.
- e) Auditoria.

## II. KAPITULUA FISKALIZAZIOA

### 136. artikulua.— Fiskalizazioaren helburua eta eremua

1. Fiskalizazioari dagokio sektore publiko administratiboaren jarduera kontrolatzea, aplikatzen zaizkion xedapenak betetzen direla bermatzeko.

2. Foru arau honen ondoretarako, honakoak joko dira jarduera ekonomikotzat: Foru Ogasunari eskubideak edota betebeharrak sortzen dizkieten eta garrantzi ekonomiko nabarmena duten administrazio-egintza, egitate eta eragiketak, eta funts edo baloreen mugimenduak. Fiskalizaziorako organo eskudunak erabakiko du administrazio-egintzetan eduki ekonomikorik dagoen.

3. Arau-proposamen guztiek, foru arauen proiektuak barne, baldin eta ezartzearen ondorioz dagokien ekitaldian edo ondorengoetan gastu publikoak gehitu edo sarrera publikoak urritu ahal badituzte, ekonomia- eta finantza-memoria jaso behar dute aurrekari eta aurretiazko azterketekin batera. Proposamena egiten duen sailak egin behar duen memoria horretan proposamena gauzatzearen ondoriozko aurrekontu-eraginak ezagutzeko behar beste datu adierazi behar dira, datuok behar bezala ebaluatuta.

### 137. artikulua.— Aplikazio-hedadura eta eremua

1. Fiskalizazioaren bitartez ondokoak kontrolatu behar dira aurretiaz:

- a) Zuzenean edo zeharka eduki ekonomikoa duten erabaki-proposamenak eta foru dekretuak, baldin eta horiek eskuetsi edo onesteko eskumena edo horien ezagutza Foru Aldundiari badagokio.
- b) Sektore publiko administratiboaren edozein organo eman eta zuzeneko edo zeharkako eduki ekonomikoa duten egintza eta xedapenak.
- c) Aurrekontuetako aldaketak, ondare-eragiketak eta Foru Diruzaintzaren konturako bermeak emateko eragiketak.
- d) Zehaztu gabeko zenbatekoa gastatu beharra ekar dezaketen ekonomia-egitate eta -eragiketak, bai eta sarrera- nahiz gastu-konpromisoak dakartenak



gresos como de gasto ya sean estos de carácter anual o plurianual.

2. También estará comprendida dentro del ámbito de la fiscalización:

a) La asistencia a las licitaciones que en materia de contratación se celebren de acuerdo con la normativa vigente.

Asimismo, asistir a los actos relacionados con arrendamientos, subastas, adquisición y enajenación de bienes.

b) La verificación física y selectiva de las obras, suministros, adquisiciones y servicios correspondientes.

c) La comprobación de la documentación justificativa del reconocimiento de las obligaciones de pago.

d) El control previo de los pagos.

3. Reglamentariamente se podrá sustituir determinadas actuaciones de control mediante procedimientos de fiscalización por procedimientos de auditoría.

#### Artículo 138.— Modo de actuación

1. La función fiscalizadora se ejercerá en sus modalidades de fiscalización formal y material.

a) La fiscalización formal consistirá en la verificación del cumplimiento de los requisitos legales necesarios para la adopción del acuerdo, mediante el examen de los documentos que, preceptivamente, deban estar incorporados al expediente.

b) En la fiscalización material se comprobará la real y efectiva aplicación de los fondos públicos.

2. La fiscalización se realizará con anterioridad a que se produzcan los actos, hechos y operaciones de contenido económico, a cuyos efectos los órganos correspondientes del sector público administrativo deberán remitir los expedientes correspondientes al Departamento de Hacienda y Finanzas en los términos que se establezcan reglamentariamente.

3. La fiscalización podrá ser exhaustiva o por muestreo. Sólo serán objeto de muestreo los actos, hechos u operaciones económicas de naturaleza análoga, que procedan de un mismo órgano administrativo y se correspondan a un período de tiempo determinado.

4. Reglamentariamente se podrá determinar que la fiscalización se concrete en la verificación del cumplimiento de determinados requisitos que se consideren básicos.

5. Cuando las normas de creación o de funcionamiento de los órganos colegiados del sector público administrativo en cuyo seno se adopten decisiones que sean susceptibles de producir adquisiciones de compromisos de contenido económico en ingresos o gastos públicos de modo directo e inequívoco, prevean la participación en los mismos de un responsable del órgano fiscalizador, la presencia de éste deberá limitarse al ejercicio de la fiscalización, sin perjuicio de su intervención en los debates.

#### Artículo 139.— Expedientes no sujetos a fis-

ere, direla urte batekoak direla urte anitzekoak.

2. Beste egiteko hauek ere fiskalizazioaren eremuok dira:

a) Kontratazio alorrean indarreko arauekin bat etorritik egiten diren lizitazioetara agertzea.

Horrez gain, ondasunen errentamendu, enkan-te, eskuraketa eta besterentzearekin zerikusia duten egintzetara joatea.

b) Obrak, dagozkien hornidurak, eskuraketak eta zerbitzuak bertaratuta egiaztatu eta aukeratzeko.

c) Ordaintzeko betebeharren aitortpena justifikatzen duten ziurtagiriak egiaztatzea.

d) Ordainketak aldeztu aurretik kontrolatzea.

3. Araudiak hala ezarrita, auditoria-prozedurek ordez ditzakete fiskalizazio-prozeduren bidezko kontrol-jarduerak jakin batzuk.

#### 138. artikulua.— Jarduteko era

1. Fiskalizazio-eginkizunak bi modalitate ditu: fiskalizazio formala eta fiskalizazio materiala.

a) Fiskalizazio formalaren bitartez, erabakia hartu aurretik legezko betekizunak betetzen direla egiaztatuko da, espedientera nahitaez bildu behar diren agiriak aztertuz.

b) Fiskalizazio materialaren bitartez funts publikoak benetan eta eraginkortasunez erabiltzen direla egiaztatuko da.

2. Egintza, egitate edo eragiketa ekonomikoen aurretik egin behar da fiskalizazioa. Horretarako, sektore publiko administratiboaren organo eskudunek behar diren espedienteak igorri beharko dizkiote Ogasun eta Finantza Sailari, arau bidez ezarritako moduan.

3. Fiskalizazioa zehatza edo laginketaren bidezkoa izan daiteke. Baldin eta organo administratibo beretik badatoz eta epealdi jakin batean eginak badira bakarrik fiskalizatu dira laginketa bidez egintza, egitate edo antzeko izaerako eragiketa ekonomikoak.

4. Arau bidez erabaki ahal izango da fiskalizazioa mugatzea oinarritzat jotzen diren betebeharrak jakin batzuk betetzen direla egiaztatzea.

5. Sektore publiko administratiboko kide anitzeko organoek zuzenean eta zalantzarik gabe sarrera edo gastu publikoak sortaraziko dituzten konpromiso ekonomikoak eragin ditzaketen erabakiak hartzen dituzten kasuetan, eta organo horien sorrera eta funtzionamenduari buruzko arauak ezartzen badute organo fiskalizatzailearen ardurdunen batek bertan parte hartu behar duela, arduradun horren eginkizun bakarra fiskalizazioa izango da, nahiz eta eztabaidetan ere parte hartu ahal izango duen.

#### 139. artikulua.— Aurretzeko fiskalizaziorik

### calización previa

Quedan excluidos de fiscalización previa:

1. Los contratos de personal y cuantas incidencias pudieran producirse durante la vigencia de los mismos.
2. Los de carácter periódico y demás de tracto sucesivo, una vez fiscalizado el gasto correspondiente al período inicial del acto o contrato del que deriven o sus modificaciones.
3. Los gastos cuyos importes sean inferiores a tres mil euros.
4. Los contratos menores.
5. Las subvenciones nominativamente asignadas en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico.

### Artículo 140.— Informes de fiscalización

1. El control ejercido mediante procedimientos de fiscalización se materializará en los correspondientes informes de fiscalización que serán determinantes para la resolución de los procedimientos en que sea preceptiva su existencia.

2. En materia de gastos, los informes favorables no requerirán motivación pero sí constancia escrita.

3. Los informes desfavorables sólo suspenderán la tramitación de un expediente en los siguientes casos:

- a) Cuando el informe de fiscalización se base en la insuficiencia de crédito o de otra fuente legal de financiación o éstos no se consideren adecuados.
- b) Cuando el acto, hecho u operación se proponga por un órgano que carezca de competencia para ello.
- c) Cuando se aprecien irregularidades en la documentación justificativa de las órdenes de pago o no se acredite suficientemente el derecho de la persona receptora.
- d) Cuando el informe desfavorable derivare de comprobaciones materiales de obras, suministros, adquisiciones y servicios no satisfactorios o inexistentes.
- e) En los casos de omisión en el expediente de requisitos o trámites que sean esenciales, o cuando se estime que la continuación de la gestión administrativa pudiera causar quebrantos económicos a la Hacienda Foral o a un tercero.

4. El órgano competente para dictar el acto correspondiente, o para proponerlo cuando sea competencia de la Diputación Foral podrá, a la vista del informe desfavorable, subsanar los defectos detectados o elevar la discrepancia inicialmente al Diputado o a la Diputada Foral de Hacienda y Finanzas, siendo su resolución obligatoria para el órgano fiscalizador.

En caso de seguir subsistiendo la discrepancia será la

### behar ez duten espedienteak

Ondokoak aurretiazko fiskalizaziorik gabe egingo dira:

1. Langileen kontratuak eta kontratuok indarrean dirauten bitartean gertatzen diren gorabeherak.
2. Aldizkakoak eta hurrenez hurrengo tarteetan banatzen diren gainerakoak, behin jatorri duten egintza edo kontratuaren epealdiari dagokion gastua edo gastuaren aldarazpenak fiskalizatu eta gero.
3. Hiru mila eurotik beherako gastuak.
4. Kontratu txikiak.
5. Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorretan esleitzen diren diru-laguntza izendunak.

### 140. artikulua.— Fiskalizazio-txostenak

1. Fiskalizazio-prozeduren bitartez egiten den kontrola fiskalizazio-txostenetan gauzatuko da. Txostenak, egitea nahitaezkoa duten prozeduretan, erabakigarriak izango dira ebazpena emateko.

2. Gastuen gaietan, aldeko txostenek ez dute arrazoiterik beharko, baina idatziz adierazi beharko dira.

3. Aurkako txostenek ondoko kasu hauetan baino ez dute etengo espedientearen tramitazioa:

- a) Fiskalizazio-txostenaren argudio nagusia kredituaren edo legezko beste finantzazio-iturri baten urritasuna denean edo kreditua eta iturri horiek desgokitzat jotzen direnean.
- b) Egintza, egitate edo eragiketa eskumenik ez duen organo batek proposatzen dituen.
- c) Ordaintzeko aginduak justifikatzen dituzten agirietan irregulartasunak sumatu edo hartzailearen eskubidea behar beste egiaztatzen ez denean.
- d) Obra, hornidura, eskuraketa edo zerbitzuren bat ez dela egokia edo ez dagoela egiaztatu ondoren aurkako txostena egiten denean.
- e) Espedientean funtsezkoak diren betekizun edo tramiteak bete gabe uzten direnean, edo administrazioko kudeaketa egiten jarraituz gero Foru Ogasunari edo gainontzekoei kalte ekonomikoa eragiteko arriskua dagoela uste denean.

4. Dagokion egintza erabakitze edo, Foru Aldundiaren eskumenekoa denean, egintza proposatzeko eskumena duen organoak, aurkako txostena ikusi ondoren, atzemandako akatsak zuzendu ahal izango ditu edo, bestela, hasieran ezbaia adierazi ahal izango dio Ogasun eta Finantza Saileko diputatuari. Eta ezbaia ebaztea derrigorrezkoa da organo fiskalizatzailearentzat.

Ezbaiak iraunez gero, Foru Aldundiak ebatziko du

Diputación Foral la que resuelva definitivamente.

5. Cuando la disconformidad se refiera al reconocimiento de liquidación de derechos, modificación de la situación de los mismos, devolución de cantidades, actuaciones relacionadas con el procedimiento de recaudación o cualquier otro supuesto que se produzca con motivo de la fiscalización de ingresos, la oposición se formalizará mediante informe desfavorable, suspendiéndose la tramitación del expediente.

El órgano competente para dictar el acto podrá subsanar los defectos detectados o, por el contrario, alegar lo que estime conveniente. De subsistir la discrepancia se interpondrá la correspondiente reclamación ante el Diputado o la Diputada Foral de Hacienda y Finanzas, dándose traslado del expediente, siendo su resolución de obligado cumplimiento para ambas partes y pondrá fin a la suspensión del procedimiento.

6. No obstante lo anterior, en materia de ingresos departamentales de carácter no tributario, la resolución de discrepancias se realizará de acuerdo con el procedimiento establecido en el apartado 4 del presente artículo.

### CAPÍTULO III CONTROL CONTABLE

#### Artículo 141.— Objeto del control contable

1. El control contable consiste en el seguimiento de la actividad económica del sector público foral a fin de asegurar y garantizar que todas las operaciones tengan un adecuado reflejo en la contabilidad.

2. Estarán sometidos al control contable cada una de las entidades del sector público foral.

Tales Entidades estarán obligadas a rendir cuentas de los actos y operaciones de contenido económico de conformidad con la presente Norma Foral.

#### Artículo 142.— Alcance del control contable

1. Son funciones a desarrollar en el ejercicio del control contable las siguientes:

- a) Inspeccionar la actividad contable de las entidades que componen el sector público foral y, en ese mismo ámbito, recabar la presentación y examinar las cuentas y demás documentos que hayan de rendirse al órgano de control externo u otros órganos formulando, en su caso, las observaciones que considere necesarias.
- b) Determinar la información de carácter contable que las entidades del sector público foral habrán de remitir, así como su periodicidad y su procedimiento de comunicación a efectos de posibilitar el ejercicio de sus funciones de centralización y elaboración de información económica y financiera del sector público.

2. Es inherente al ejercicio de control contable la posibilidad de recabar todo tipo de información contable de las entidades del sector público foral, los informes económico-contables que les afecten y centralizar la información

behin betiko.

5. Ezadostasuna eskubide-likidazioaren onarpenari, beren egoeraren aldaketari, kopuruen itzulketari, zerga-bilketa prozesuarekin erlazonaturiko jardueri edo sarrearen fiskalizazioaren ondorioz gertatzen den beste edozein kasuri dagokionean, aurkakotasuna kontrako txosten bidez formalizatuko da, eta espedientearen tramitazioa eten egingo da.

Egintza erabakitzeko organo eskudunak atzemandako akatsak zuzendu ahal izango ditu edo, bestela, bidezko deritzona alegatu. Ezbaiak irauenez gero, dagokion erreklamazioa jarriko zaio Ogasun eta Finantza Saileko diputatuari, espedientea igorri. Erreklamazioa ebaztea bete beharrekoa izango da bi aldeentzat, eta amaiera emango dio prozeduraren eteteari.

6. Aurrekoa gorabehera, zergaz besteko sail-sarrearen inguruko gaitan, ezbaian ebazpena artikuluko honetako 4. idatz-zatian ezarritako prozedurari jarraituz egingo da.

### III. KAPITULUA KONTABILITATE-KONTROLA

#### 141. artikulua.— Kontabilitate-kontrolaren helburua

1. Kontabilitate-kontrola foru sektore publikoaren jardura ekonomikoaren jarraipena egitean datza, eragiketa guztiak kontabilitatean behar bezala adierazten direla ziurtatu eta bermatzeko.

2. Foru sektore publikoko erakunde guztiak daude kontabilitate-kontrolaren menpe.

Erakunde horiek behartuta daude egintza eta eragiketa ekonomikoaren kontuak ematera, foru arau honetan ezarritakoarekin bat etorritik.

#### 142. artikulua.— Kontabilitate-kontrolaren hedadura

1. Kontabilitate-kontrollean dihardutenek eginkizun hauek bete behar dituzte:

